

B

BARREN

TOKIKOM

Mundu bat euskararekin



ESKERTZA

JOSE ZUAZUBIZKAR GOENAGA

Betirako egongo zara gure oroimenean

2015ko martxoaren 16an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

CELSO BLANCO SESTO

*Zure falta sumatzen dugu,
baina gure bihotzetan zaude.*

Emazteak, alaba eta suiak, bilobek eta gainerako senideek.

2014ko martxoaren 30ean hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 28an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA

LURDES ZUBIAURRE PUJANA

*Hainbeste maite zenituen
zure bailara eta mendia,
zure alaba eta biloba txikia,
lagunak eta sendia.
Guk ere maite zaitugu,
egin lasai bidia.*

Etxekoak

2015eko martxoaren 18an hil zen, 64 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Esti
Gonzalez

Bi urte igaro dira dagoeneko zozo eta be-
le lan honetan hasi ginenetik,
Miren. Bai, bi urte! Atzo izan zela-
koan, baina azkar igarotzen da denbora.

Bi urte hauetan gai ezberdinei buruz jardun dugu, biok amak izanik, emakumeak (eta langileak) izanik... izan ditugu irakurleekin partekatze-ko gai komun asko. Gure lehen saioa martxoaren 8an izan zen, egun berezia, eta harrezkero, gaiak asko izan dira. Batzuetan gehiegi ez gara busti ere esan didate, baina tira, hortxe erreleboa heldu nahi dionarentzat. Nire aldetik ahal izan dudan ondoen egin dut, eta zeuk ere horrelaxe egin duzunaren ziurtasun osoa daukat. Gogoia eta ilusioa behintzat jarri diogu.

“Besarkada bero bat irakurle guztiei eta zuretzat bereziki, Miren, muxu potolo bat”

Gure herrikide diren Don Anjel eta Iñigok eman ziguten guri txanda eta orain, guk, beste batzuei emateko ordua da. Egun hauetan Euskal Herria zeharkatzen ari den Korrikako testigua bailitzan. Txanda beraz, beste batzuentzat, guk egin dugu kilometrotxo bat eta denon artean ibilbide luzeagoa egitea da helburua, pausoz pauso. Tipi tapa, tipi tapa, Korrika...

Egia esan bi urte hauetan gustura jardun dut. Oso aberasgarria izan da niretzat atal honetan idatzi ahal izatea, eta irakurleak entretenitzea lortu badugu, pozik geratzen naiz egindako lanarekin. Beste batzuetan hainbat gairi buruz erreparatzea zen helburua eta beste batzuetan iritzia sortzea. Lortuko ote genuen?

Bukatzeko, besarkada bero bat irakurle guztiei eta zuretzat bereziki, Miren, muxu potolo bat. Laster arte!



Miren
Vives

Ba bai, Esti, iritsi zaigu lekukoa pasatzeko unea. Esperientzia polita izan da. Ez naiz jario handiko pertsona eta hitzak ez dira nire komunikatzeko modu naturalena. Grafikoki gauzak adieraztea errazagoa iruditu izan zait beti eta institutu garaitik idazlanik egin gabe nengoela aitortu beharra daukat. Beraz, aukera ederra izan da karaktere kopuru mugatu batean gaia planteatu eta horri buruzko zertzeladak idazteko hau. Horri esker, hobetu aprezia ditzaket kazetari eta idazle onen lanak, ideiak ondo adieraztea zeinen zaila den bi hilabetero bizi izan baitut azken bi urte hauetan. Elkarlanari buruz, berriz, zer esango dizut ba, Esti... Gehienetan nahiko ados gaudenez zaila izan dela polemika piztu edoeta zurekin eztabaidan hastea.

“Mila esker BARREN.EUS-i emandako aukeragatik! Eta zuri, Esti, gero arte!”

Berdintasunari buruz hizketan hasi ginen eta halaxe bukatu nahi nuke. Bi urte hauetan zehar gaiak aukeratzeko orduan sarritan galde-tu diot neure buruari ea gai hori gizonetako banintz aterako nukeen ala ez. Estereotipoei aurre egin eta inongo aurreritirik gabe gai ezberdinak jorratzen saiatu garaela pentsatzea gustatuko litzaidake. Hau da, emakume, langile, ama eta batez ere gizartean parte hartzen duten bi pertsonen iritzi eta berriketak ibili ditugula. Politia litzateke hamar urte barru ekimena errepikatzea, egoerak konparatu eta lorpenak ospatzeko. Etorkizuneko Esti eta Mirenek zeri buruz hitz egingo ote dute? Erantzuna jakiteko itxoitea tokatuko zaigu. Bitartean, gaizki esanak (eta idatzia) barkatu eta ondo esanak gogoan hartu.

Mila esker BARREN.EUS-i emandako aukeragatik! Eta zuri, Esti, gero arte! Gure lekukoa hartuko dutenei, berriz, gozatu aukera!



LURDES ZUBIAURRE ‘TXILLARRE’

2015eko martxoaren 18an, 64 urte zituela hil zen.

“Bizitzaren aldapetan oinez jarraituko duzu gure mendiko botetan”

Maitasunez, mendiko lagunak.



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEA Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Toponimia

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibarko
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ERAKOZTE ERAGILEAK
ERAKOZTE ERAGILEAK

ERAKOZTE ERAGILEAK
ERAKOZTE ERAGILEAK

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **Izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

AEK euskaltegiak Korrika zaleei eskerrak

Urepeletik Bilbora bidean da 19. Korrika, asotelehen iluntzean Elgoibar eta Mendarotik pasatuta. Aurretikako antolaketak dakarren zama ahaztarazten digun lasterketa “zoro” honek ia herritar guztiak atera zituen kalera: batzuk antxintxika egitera, beste batzuk txaloak jotzera, beste batzuk lekukoari heldu-heldu eginda sekula ahaztuko ez duten une hori bizi izatera...

Hau guztia furgonetatik esateriak lagundutako oihu, biba eta enparauekin: *hemen gaude euskararen alde/ ika-ika Korrika/ hemen gaude AEKren alde...* Zelako jendetza, zelako zirrara, zelako giroa... Ez daukagu hitzik azaltzeko. Mila esker.

Oraindik ere horiek guztiak barru-barruan ditugula eta igandean Bilbon bizi izango ditugun beste hainbat falta zaizkigun arren, AEK euskaltegikook eskerrak eman nahi dizkizuegu Elgoibarren Korrika 19 hau horren arrakastatsua egitea ahalbideratu duzuen guztioi: dela “laguntzaile txartela” eginda, dela “korrika lagun” aportazioa eginda, dela KMa hartuta, dela arropa erosita, dela Korrika Txikia eta Gaztea antolatuta... eta nola ez, horren bihotz onez lagun izan ditugun Ane, Arantxa, Isa, Jokin, Naiara eta AEK euskaltegiko hainbat ikasleri.

Halaber Udalari, bereziki Euskara Sailari, Ongarri zine klubari, Gazte asanbladari, Mausitxa txarangari, Mendaroko lagunei, bereziki Ireneri bitartekari lanak ederki asko egiteagatik, korrika egin edo txaloak jotzen jardun zenuten guztioi, denon artean lortu da-eta, lortutakoa.

Baina, egunero jarraitu behar dugu euskahaldun izaten, hau da, dakigunok erabiltzen, ikasten dihardutenek euren burua ahalduntzen, oraindik ikasteko pausoa eman ez dutenek mundu berri hori ezagutzen, eta horretarako, jakizue AEK euskaltegian ateak zabalik daudela, bakoitzaren beharrak eta nahiak asetzeko eskolak ematen ditugulako.

Izan gaitezen euskahaldun!

Elgoibarko AEK ☪

Korrikaren Mendaroko kronika eta esker ematea

19:10ean genuen ordua Lanbi parean egoteko, eta hantxe zeuden ospitaleko lagunak, fin eta animotsu, furgoneta noiz iritsiko zain. Eta iritsi zen Korrika, 19:20 aldera. Une hunkigarria

izan zen, agian sei urte generamatzagulako Korrikaren aldeko oihuak Mendaron entzun gabe, edo agian, Korrika beti delako ziragarria.

Ospitaleko langileek, Gazte Asanbladakoek, Motxaila Band eta Motxaila elkartekoek, RTSkoek, eta Mendaro ikastola eta Arno guraso elkartekoek eskuz eskuz ekarri zuten herrira lekukoa. Frontoi atzean zuten ludoteka eta gaztelekukoek euren gunea antolatuta. Pultsera eginean, aurpegiak margotzen eta trikitixa jotzen aritu ziren, Korrikari ongi-etorria emateko! Lekukoa hartu eta zubi muturrean zain genituen musika eskolakoak ere, eta txalaparta hotsekin eta irrintzi batekin hartu gintuzten. Azpilgoetako kale barrenean txarangakoak genituen zain, ondoren giza-probakoak, Kilimon, Aizpe eta Bustin-alde elkarreetako ordezkariak gero, udaletxeak atzetik, eta azkenik, txirridulari elkarreetakoak, debarrei lekukoa emateko.

Eskerrak eman beharra diegu goian aipatutako elkarte guztiei, beste behin ere hor egon direlako, eta eskerrik asko, era berean, modu batera zein bestera Korrika babestu duzuen guztioi. Mila esker, zuei, Igor Rey, Aitzol Urain eta Mendaroko Txirridulari Elkarteak, antolakuntza lanetarako behar genuen guztia eskura jartzeagatik. Eta azkenik, eskerrik asko, saltza honetan sartu gintuzten Haritz Goikoetxea, Nerea Larrañaga eta Elgoibarko AEKri. Plazera izan da euskarari laguntzea! Ziur hurrengo edizioetarako aintzat hartuko gaituztela mendarorrok.

Mendaroko Korrikako antolakuntza ☪

Morkaikoren oharra

Bazkide kuota pasatu berri dugu zuen konfiantzatik. Zure kontua Laboral Kutxakoa baldin bada, Andoitz Agirregomezkorta azalduko zaitzu azalpenean, Morkaiko M.E. beharrean. Mesedez kontuan izan kargu hori bazkide kuotaren kobrantza dela eta zuzenean Morkaikoko kontutik kobratua izan dela. Beraz, Morkaikoko bazkide izan edo jarraitzeko asmoa baduzu, ez itzuli kargu hau mesedez.

Elkarteko kontu korronea izan arren, titularrak legez persona fisiko bat izan behar da eta horregatik nahastea. Barkatu eragozpenak.

Zalantzarik baduzu jarri gurekin edo Laboral Kutxarekin harremanetan mesedez.

Morkaiko M.E. ☪



Autobus ordutegiak ez dira ikusten: “King-Kong autobus geltokian autobus ordutegiak jartzeko panela zikin-zikin dago, eta ezin da ezer irakurri. Kristala margotuta dauka panelak, eta ezinezkoa da barruko paperean jartzen duena irakurtzea. Horrela egoteko, hobe da ezer ez jartzea, alperrik dago-eta. Foru Aldundian galdetu dut noren ardura den markesinak zaintzea, eta Udalarai dagokiola esan didate, beraz, espero dut kontuan hartzea”. Rikardo Garate Hirigintza Saileko arduradunak esan du kontuan hartuko dutela gai hau eta aztertuko dutela.



Sigmako zubiaren irteeran pibote zuri-gorriak daude aspalditik: “Sigmako zubitik Eibar aldera irtetea debekatu zutenean pibote zuri-gorri batzuk jarri zituzten errepidean, baina behin behinekoak izango zirela uste genuen. Denbora luze pasatu da ordutik, jendeak dagoeneko ikasi du Sigmako zubitik Deba aldera irten behar dela derrigor, beraz, uste dugu badela pibote horiek kentzeko ordua, eta bestela, zerbait dotoreagoa jartzea eskertuko genuke”. Ricardo Garate Hirigintza Saileko zinegotziak esan du errepide nagusia Foru Aldundia- ren kompetentzia dela baina aztertuko dutela. Hirigintzatik gogorarazi dute kexak udaletxera bideratzea komeni dela, lehenbailehen konpondu ditzaten.



Ikastolaren izenean, mila esker: “Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu marxoaren 14an ospatutako XVIII. Pilota Eguna antolatzen lagundu zuten Elgoibarko Pilota Eskolako arduradunei. Bestalde, eskerrik beroenak baita ere parte hartu zuten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretela-koan, agur bero bat”.



Txalo bat Morkaikori, Muskurutxuko iturria konpon- tzeagatik: “Eskerrak eman nahi dizkiogu Morkaikori eta, batez ere, Modestori, Muskurutxuko iturria konpondu eta txukuntzeko hartutako lanagatik. Karakateko hau oso ondo laga dute, eta txalo bero bat me-rezi dute”.



Pintxo-pote erotikoa antolatu dute Elgoibarko 29 tabernarik astebururako

Atzo hasi zen pintxo-pote erotikoa, eta bihar arte pintxo erotikok dastatzeko aukera egongo da Elgoibarko 29 tabernatan, 19:00etatik aurrera. Aurreko urteetan bezala, pintxo erotikoez gain beste hainbat ekintza ere prestatu dituzte: tupper-sex jardunaldia, streaptease-a, kontzertuak, ardo-dastaketa eta metafora lehiaketa, besteak beste. Gaur arratsaldean pintxo-dastaketa izango da ekitaldi nagusia, baina bihar tabernetako giroaz gain, kaleko giroa berotzeko ahalegina egingo dute. Drag queen-ak ibiliko dira kalean, kontzertua egongo da Maalan, eta sexologo batek gidatutako ardo-dastaketa egingo dute Viento Sur tabernan.



Arg.: Aitor

Jose Luis Ibarzabal izango da Elgoibarko EHBilduren alkategaia



Maiatzeko Udal Hauteskundeen harira, Elgoibarko Udala kudeatzeko antolatu duen lantaldea aurkeztu du EHBilduk. Jose Luis Ibarzabal izango

da alkategaia, eta berarekin lantaldea osatuko duten kideak honako hauek dira: Jose Luis Ibarzabal (alkategaia), Iñaki Larrañaga (Hirigintza eta

ingurumena), Mireia Isasmendi (Euskara), Miren Arrate Arrieta (Kultura), Joseba Osoro (Gizarte politika eta ongizatea), Jon Peli Uriguen (Toki garapena eta enplegua), Jon Etxabe (Udal kudeaketa eta herritarren partehartzea), Amets Izagirre (parekidetasuna) eta Joanes Rodriguez (Gazteria arloko arduraduna). EHBilduren asmoa "irabaztea" eta udal berria "kudeatzea" dela azaldu zuen Ibarzabalek aurkezpenean.

Ehun bat umek hartu zuten parte Zuhaitz Egunean

Basoen Nazioarteko Eguna martxoaren 21ean dela-eta, Zuhaitz Eguna egin zuten joan zen astean Elgoibarren. Ikastolako eta Herri Eskolako 100 bat ume, 11 eta 12 urtekoak, aritu ziren zuhaitz landareak landatzen, Albitxuri industri-gune inguruan. Euskal basoetan ohikoak diren bi zuhaitz mota landatu zituzten: hamabost lizar eta beste horrenbeste urki. Idoia Alvarez Elgoibarko Udaleko teknikariaren azalpenak entzun zituzten umek lanean hasi baino lehen, eta besteak beste, zuhaitzek ingurumenean duten garrantzia nabarmendu zuten.



Adierazpena **Arnaldo Otegi eta presoak**



Arnaldo Otegi askatu; euskal presoak etxera adierazpena aurkeztu dute Europako Parlamentuan nazioartean itzal handia duten 24 pertsonak. Euskal Herriko gatazkaren konponbidea bultzatzeko agiria dela adierazi dute, eta Friendship taldeak sustatuta aurkeztu dute. Gatazka konpontzeko euskal presoek ezartzen zaien sakabanaketa bertan behera lagatzeko eskatu dute, eta tartean Otegiaren aldeko adierazpena egin dute. "Bakearen eta demokraziaren alde arriskatzen jakin zuen gizona berehala askatzeko" eskatu dute, "inork egingo ez zuela zirudienean, hitzaren aldeko apustua egin zuelako".

Prestakuntza **Ekintzailetasuna**

Ekiten lagundu egitasmoaren baitan ekintzaileei zuzendutako prestakuntza tailerrak antolatu ditu Debegesak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Urte osoko egitaraua da berez prestatu dutena, baina tailerrak apirilaren 13an hasiko dituzte, eta hilean bat egingo dute. Negozio-ideiaren bat dutenei, negozioa zabaltzeko berri dutenei edo eta euren enpresa sendotzeko laguntza behar dutenei zuzenduta daude tailerrak. Saio guztiak doan izango dira, baina parte hartzeko izena eman beharko da aurrez ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzita edo 943 820 110 telefono zenbakira deituta.

Irudia **Aldaketak merkatu plazan**

Merkatu plazan aldaketak egiten dihardute. Apirilaren 9tik aurrera lehen solairuan jarriko dituzte salmenta postu guztiak, tartean baseritarrek eguenetan bigarren solairuan jartzen dituztenak —hamabi postu guztira—. Bigarren solairua, berriz, jarduera kulturalak egiteko erabiliko dute. Aita Agirre eraikinean dauden elkarte eta taldeak bertatik ateratzen ari da Udala, eraikina egoera txarrean dagoela-eta. Egur tailerra da horietako bat, eta Merkatu plazako bigarren solairuan egingo diote lekua, behar bezala egokitu eta gero. Bien bitartean, kalean jarriko dituzte postuak baseritarrek ostegunetan.



Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren

Odol Emaileen elkarteak jakinarazi du gaur egingo dituztela odol ateratzeak Elgoibarren, 18:30etik aurrera, Odol Emaileek anbulategi ondoan duten lokalean.

Almuñecarrera irteera antolatu du Elgoibarko Jubilatuen egoitzak

Elgoibarko Jubilatuen Egoitzak Almuñecarrerako bidaiari antolatu du maiatzaren 11tik 20rako. Almuñecar Playa Spa hotelean hartuko dute ostatu, lau izarreko hotelean, eta hainbat irteera egingo dituzte han inguruan. Besteak beste, Granada bisitatuko dute, eta hala nahi dutenek La Alhambra ikusteko aukera ere izango dute, 20 euro ordainduta. Jubilatuen Egoitzako bazkideentzat 500 euro balio ditu irteerak, eta gainerakoentzat, 530.

Donostia eta Elgoibar artean gaueko autobus zerbitzua hobetu dute

Herritarrek egindako eskaerak aintzat hartu eta Donostia eta Elgoibar arteko gaueko autobus zerbitzua handitu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurrerantzean, autobus bat izango da gauez Donostia eta Elgoibar arteko bidea egiteko. 00:30ean irtengo da Donostiatik eta 1:15etarako iritsiko da Elgoibarrera. Elgoibartik, berriz, 23:40ak irtengo da zapatuan Donostiarako azken autobusa.

Lanbide heziketa eta industria mundua ezagutzeko jardunaldiak

Ikastolako eta Arreiturre Institutuko DBH 4ko ikasleentzat lanbide heziketa eta industria mundua ezagutzeko jardunaldiak antolatu ditu Elgoibarko Udalak Ojmar enpresarekin, Manahmanarekin, IMHrekin eta Meka Lanbide Eskolarekin elkarlanean. Martxoaren 23tik 27ra bitartean egingo dira jardunaldiak, Elgoibarren

Otsailean...

JAIOTAKOAK



Aitor Jauregi Iriondo
Otsailak 12
Iñaki eta Mirian



Danel Vígara Vazquez
Otsailak 14
Alex eta Silvia



Hodei Malvar Ibañez
Otsailak 23
Oscar eta Silvia

Jakes Zabala Apellaniz
Otsailak 5
Iosu eta Oihana

Ane Ramos Barrutia
Otsailak 3
Eneko eta Ainara

Julen Martin Barreña
Otsailak 15
Alberto eta Ainara

HILDAKOAK

Hermenegilda Zubiaurre San Martin • 96 urte • Otsailak 1
Juan Arrizabalaga Zuloaga • 84 urte • Otsailak 2
Paquita Olivas Marin • 86 urte • Otsailak 3
Felisa Maguregi Osoro • 91 urte • Otsailak 4
Justina Santos Santos • 88 urte • Otsailak 6
Maria Angeles Viñe Campo • 85 urte • Otsailak 6
Maria Teresa Zubizarreta Artaetxebarria • 80 urte • Otsailak 8
Tomas Fernandez Sanchez • 91 urte • Otsailak 10
Juan Bruno Nuñez • 76 urte • Otsailak 13
Claudio Armero Escudero • 88 urte • Otsailak 15
Rosa Mari Perez-Cortes Recio • 60 urte • Otsailak 20
Maria Cruz Modamio Alvarez • 53 urte • Otsailak 22

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295



ESKERTZA

PATXI AJUBITA AYESTA

2015eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

JOSE MARIA MENDIKUTE ZANGITU

2015eko martxoaren 17an hil zen, 85 urte zituela.
Familia eta lagunek bihotzez eskertzen dute jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Erretratu zaharra



1975

Aste honetako erretratu zaharra Jose Mari Ansolak ekarri du BARRENERA. 1975. urteko sanbartolomeetan aterata dago, Txiki Egu-near. Garai hartan CD Elgoibarrek tonbola jartzen zuen herriko jaietan, eta tonbola horren aurrean aterata dago argazkia, Kalebarren plazan. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak.

Zutik, ezkerretik eskumara: Mikel Esnaola, Maria Eugenia Ansola, Daniel Garcia, Valentin Hidalgo, Jose Mari Fernandez, Jose Andres Murua, Jose Mari Aranzamendi eta Iñaki Zubiaurre. **Makurtuta:** Jose Mari Unamunzaga, Pako Ansola, Jose Mari Etxeberria, Eusebio Fernandez, Xabier Urresti, Xabier Zubiaurre, Amelia Asensio eta Jose Mari Ansola.

UDABERRI FESTA
HH2-LH2
MARTXOAK 29, domeka, 11:30ean
Maalako parkean

ADUTRIKAWAJEA
elgoibar
Gipuzkoako Foru Aldundia



Bilborantz doa Korrika, gurean arrastoa utzita



Euskaldundu lemapean iritsi zen astelehen iluntzean Korrika Elgoibarrera, euripean, baina hala ere, ongi-etorri beroa egin zioten elgoibartarrek. Herri osoa zeharkatu ostean, Mendararako bidea hartu zuten korrikalariak, eta dagoeneko, Bilbora bidean da Korrika –domekan, 7:41ak aldera, iritsiko da Sarrikora, ondo bidean, eta 12:30ak aldera bukatuko da Bilboko Areatzan–. 11 egunez, etenik gabe, 2.500 kilometro inguru egingo ditu euskararen aldeko martxak, eta azkeneko txanpan sartuta dago. Bi urtean behin gertatu ohi den antzera, euskaraz bizi den eta bizi nahi duen herria agertu du Korrikak, eta izugarria izan da mugitu duen jendetza. Eta ohi legez, Korrikarekin batera, Korrika txikiak eta gazteak ere egin dira herriz herri, baita gurean ere. Argazkiak eta bideoak: www.barren.eus



Haizea emakume taldea (Arg.: Fernan Oregi)



Sanlo eskubaloia kluba (Arg.: Fernan Oregi)



Gainduko langileak (Arg.: Fernan Oregi)



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea (Arg.: AEK)



Mauxitxa txaranga



Morkaiko Mendizale Elkarte (Arg.: AEK)



EAJ (Arg.: Fernan Oregi)



Gipuzkoako Urak (Arg.: Fernan Oregi)



Alkortako LAB



Elgoibarko Udaleko Euskara eta Kultura sailak (Arg.: F. Oregi)



IMH, Herri Eskola, Haur Eskola, Institutua, Meka (Arg.: Fernan Oregi)



EHBildu



Ikastolako langile, ikasle eta gurasoak. (Arg.: Fernan Oregi)



Felix Etxeberria (Arg.: Fernan Oregi)



Kimetz elkarte (Arg.: Fernan Oregi)



Txankakua Elgoibarko merkatarien elkarte (Arg.: Fernan Oregi)



Gazte Asanblada (Arg.: Fernan Oregi)



Haritz euskal dantzari taldea (Arg.: Fernan Oregi)



IK-4 Ideko



Danobat (Arg.: Fernan Oregi)



AEK (Arg.: Fernan Oregi)



Lagunak pilota eskola (Arg.: Fernan Oregi)



CD Elgoibar (Arg.: Fernan Oregi)



IMH, Meka eta Elgoibar BHI institutukoek Korrika gaztea egin zuten astelehen goizean.



Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatu zuten Korrika txikia astelehenean. Euriagatik Maalan egin behar izan zuten.



Mendaroko ospitalea (Arg.: Fernan Oregi)



Gazte asanblada, Motxaila Band eta Motxaila elkartea (Arg.: F. Oregi)



RTS (Arg.: Fernan Oregi)



Mendaro Ikastola



Arno guraso elkartea



Ludoteka (Arg.: Fernan Oregi)



Gaztelekua



Musika eskola



Bizipoza txaranga



Mendaroko giza-proba taldea (Arg.: AEK)



Aizpe, Bustinalde eta Kilimon elkarteak (Arg.: Azkue)



Mendaroko Udala (Arg.: Azkue)



Mendaroko txirrindulari elkarteak (Arg.: Azkue)



Mendaro Ikastolako haurrak Korrika txikia hasi aurretixoan.



Euriagatik ikastolako patioan egin behar izan zuten Korrika txikia Mendaro Ikastolako neska-mutilek.

Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna bihar, martxoko azken zapatuko ferian

Eguerditik aurrera landaketa tailerra egongo da umeentzat

Elgoibarko Udalak eta Debemenek antolatuta, martxoko azken zapatuko feria egingo dute bihar, eta oraingoan Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna. 11:30etik aurrera Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin prestatutako pintxoak jarriko dituzte salgai. Oraingoan, txorizo egosia, haragi egosia eta salda pintxoak eskainiko dituzte, euro batean.

Hilero bezala, goizean goizetik Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre plazan.

Landaketa tailerra

Atxutxiamaika Aisialdi Taldekoek landaketa tailerra egingo dute 12:00etan. Etxeko txikienek hartu ahal



izango dute parte. Besteak beste, landareak nola eta noiz landatu behar diren ikasiko dute.

Musika giroa, bestalde, Elgoibarko Kale kantariak jarriko dute, 12:00etatik aurrera.

Maria Moliner Saria jaso du Elgoibarko liburutegiak



Maria Moliner Saria jaso du Elgoibarko Gotzon Garate Udal liburutegiak, *Erraz irakurtzea gustatzen zaigu* egitasmoari esker. Espainiako Kultura Ministerioak antolatutako Maria Moliner sarietan 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan irakurtzeko zaletasuna sustatzeko liburutegi publikoek antolatzen dituzten egitasmoak saritzen dituzte. Errekonozimenduaz gainera, gazte-literaturako liburu-sorta bat jasoko dute saritzat Elgoibarkoek.

Duela bi urte jarri zuten abian *Erraz irakurtzea gustatzen zaigu* egitasmoa, irakurtzeko edo ulermenerako zailtasunak dituzten pertsoneri laguntzeko. Eguneko Zentroko erabiltzaileekin hasi zituzten lehen saioak, baina beste orain beste kolektibo batzuk ere batu dira egitasmoa, besteak beste, Zereginen Ikaskuntzarako Gelako (Z.I.G.) ikasleak.

Trinitate jaietako azoketan izena emateko epea zabalik dago

Maiatzeko azken asteburuan ospatuko dira aurten Trinitate jaiak, eta antolatzaileak dagoeneko hasi dira lanean. Udalak eta Debemenek antolatuta Trinitateetako azoka berezia izango da maiatzaren 30ean, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak Debemenera deitu beharko dute (943 744 067).

Maiatzaren 31rako, bestalde, artisau azoka antolatu du Udalak. Feria honetan artisauak bakarrik parte hartu ahal izango dute, eta produktuek artisauak beraiek egingakoak izan beharko dute. Azoka Lekueder parkean izango da, 10:00etatik 14:30era. Izena emateko interesatuak Udaleko Kultura Sailera jo behar dute (943 742 158).

Ikastola Bruselan izan da informatika ekitaldi batean, Google-ek gonbidatuta

Elgoibar Ikastola Google-ek Bruselan antolatatu duen Chromebook Pilot and Professional Development ekitaldian parte hartzera gonbidatu dute. Europako beste hainbat ikastetxe ere gonbidatu dituzte ekitaldira, baina bera izan da estatuko bakarra. Miren Arrate Arrieta irakaslea joan zen Bruselara, eta bi egun egin zituen han. EKI digitala aurkeztu zuten, eta Google-ek hezkuntzarako dituen aplikazioen formakuntza saioak ere egin zituzten. Han landutako programak ikastolan jarriko dituzte praktikan, eta ondoren, Bruselan bertan egingo den bigarren ekitaldian egingo dute aurkezpena.

Ikastolan ikasturte honetan hasi dira Google Chromebook erabiltzen. DBHko ikasleekin, EKI edo konpetentzietan oinarritutako materiala digitala, hain zuzen ere. EKI proiektua Ikastolen Elkarteak diseinatu duen material berria da, eta pertsona bere osotasunean hartu, eta arlo jakineko edukiak ez ezik,



bitzita osoan baliagarriak izango zaizkion mekanismoak eta prozedurak lantzen dituzten ikasleekin. Ikerketa eta Garapen (I+G) moduan garatu da bide hau ikastola gutxi batzuetan, tartean Ikastolan.

Udaberri Festa, domekan

Atxutxiamaika aisialdi taldeak Udaberri Festa antolatuta du domekarako. Aste honetan sartu gara udaberrian, eta urtaro aldaketa ospatzeko hainbat ekintza prestatu ditu. 11:30etatik 13:30era bitartean, jolasak eta eskulan-tailerrak egingo dituzte Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Kalegoen plazan beharrezan Maalan batuko dira, ordu berean.

'50 sombras de Grey' filma ez dute jatorrizko bertsoian emango

Kultura Sailak jakinarazi du *50 sombras de Grey* filma bikoiztutako bertsoian soilik emango dutela. Zapatu gaueko emanaldia jatorrizko bertsoian ematen ahalgintzen da Kultura Saila, baina asteburu honetako saio guztiak gaztelaniaz emango dituzte.

'Erdibana' antzerkia apirilaren 10ean

Txalo Produksioak *Erdibana* antzerkia taularatuko du Herriko Antzokian, apirilaren 10ean. Komedia generoko antzezlan da. Enbolia eta gripeak jota eta bere azkenetan den amak ez dauka hiltzeko asmorik. Bi seme ditu emakumeak: batek bere enpresa hondoratzeko arriskuan ikusten du, eta beste semea etxean bizi da, amaren kargu: ama orraztu, zaindu eta ia akabatu ere egingo du. 20:30ean hasiko da saioa. Sarrerak www.kutxa.net helbidean erosi daitezke aurrez, eta Internetez saltzen ez direnak lehia-tilan erosi ahal izango dira.



'Jataren koloreak' ipuina aurkeztu dute



Elgoibarren ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren harira, *Jataren koloreak* izeneko ipuina argitaratu dute Herri Eskolak eta Kalamua Guraso Elkarteak. Ikastetxearen baloreetan oinarritutako ipuina sortu dute, eta ipuin horren bidez balio horiek sustatu nahi dituzte umeen artean. Original Komunikazio Grafikoa diseinu enpresa elgoibartarrak egin ditu ilustrazioak, eta irudietan Elgoibarko hainbat leku ageri dira, besteak beste, Kalegoen plaza edota San Frantzisko iturria. Kultur Etxeko sotoan egin zuten ipuinaren aurkezpena, Maialen Arnedoren laguntzarekin. Ipuinak salgai daude, bi euroan.

Ur Bizi elkarteak urpeko ekintzak eta ikus-entzunezkoen jardunaldiak antolatu ditu astebururako


Kiroldegian izango dira ekintza guztiak

Ur Bizi urpekarien elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu gaur, bihar eta etzirako. Hasteko, gaur, ostirala, hitzaldia eskainiko dute Olaizaga kiroldegian, *Nor gara eta zer egiten dugu* izenburupean. 19:30ean izango da hori, baina aurrez, 18:00etan, erakusketa zabalduko dute, eta 20:00ak bitartean, urpeko irudiak eta urpekaritzan erabiltzen dituzten tresnak ikusi ahal izango dira, besteak beste. Bihar, egun osoz egongo da erakusketa zabalik, 9:00etatik 13:00etara, goizez, eta 16:00etatik 20:00etara, arratsaldez. Hitzaldia ere antolatu dute biharko,

Urpekaritza leize-zuloetan izenekoa (18:00). Egun handia, baina, igandea izango da. Erakusketak zabalik jarraituko du igandean, eta hitzaldia ere izango da goizean, 11:00etan, Side-Mount modalitateari buruzkoa. Arratsalderako, berriz, urpekaritza bataioak antolatu dituzte hasiberrientzat, eta Side-Mount bataioa egiteko aukera izango dute tituludun urpekariak. Urpekaritzan bataiatu nahi dutenek, baina, izena eman behar dute aurrez, honako telefono zenbakira deituta: 607 530 461. Ur Bizi taldeak 25 urte beteko ditu aurten.

Lizarpe aurkeztu dute, mendi lasterketetarako taldea

Lizarpe Mendi Klubaren barruan mendiko lasterketetarako sortu duten izen bereko taldea aurkeztu zuten martitzenean, Elgoibarren. Txarriduna hotelak babestu du taldea, eta hotelaren atarian atera zuten talde-argazkia kirolariak. Trabesiako probetan eta mendiko lasterketan bakarka zein taldeka lehiatzen diren korrikalariei laguntzeko sortu dute hein batean Lizarpe lasterketa-taldea, baina baita, Mendaroko Kilimon Trail lasterketa bera indartzeko ere, Euskal Herriko nahiz nazioarteko txapelketetako proba puntuagarria izateko ezinbestekoa duelako mendiko klub baten babesa izatea. Apirilaren 12an jokatuko da aurten Mendaroko Kilimon Trail lasterketa.



Apirilaren 27an hasiko da Elgoibarko nesken pala txapelketa

Nesken pala txapelketa antolatu dute Elgoibarren laugarren urtez jarraian. Apirilaren 27an hasiko da txapelketa, eta hilaren 17ra arteko epea dago izena emateko. Interesatuek Iturri tabernan eman behar dute izena, eta bikoteko 20na euro ordaindu behar dute.

Ramon Garcia hirugarren sailkatu da Gipuzkoako txapelketan, masterretan

Gobike Master taldeko Ramon Garcia hirugarren egin zuen joan zen astean Urretxun jokatu zen Gipuzkoako txapelketan, master30 kategorian. Era berean, Lentadillan jokatu zen errepideko lasterketan bosgarren sailkatu zen elgoibartarra



Espainiako Txapelketa irabazi du Maite Maiorak, Vall del Congosteko mendi-lasterketa irabazita

Vall del Congost mendi lasterketa irabazi du asteburuan Maite Maiora mendarorarrak, Skyrunnerreko Espainiako txapelketa. 43 kilometroko lasterketa zen, eta korrikalariek 3.100 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten. Maiorak erakustaldia eman zuen. 27. kilometrora arte bigarren joan zen, Salomon Etixx taldeko Oihana Kortazarren atzetik, baina 27. kilometro horretan pot egin zuen Kortazarrek, eta aurea hartu zion mendarorarrak. Bukaeran hogei minututik gorako aldea atera zion Kortazarri. Hirugarren sartu zen elgetarra helmugan, Gema Arenasen atzetik. Gizonezkoetan, berriz, Salomon Etixx taldeko Pablo Villa gailendu zen.

Urrezko bi dominarekin itzuli da Gaizka Loiola eskiatzailea Andorratik

Itsuentzako eslalom eta erraldoi-probak irabazi ditu

Denboraldi biribila egin du Gaizka Loiola eskiatzaile elgoibartarrak, bukaera gazi-gozoa izan arren. Jokatu dituen lasterketa guztietan igo da podiumera, eta azkena asteburuan Pas de la Casa eski-estazioan (Andorra) jokatu duen txapelketan bi urrezko domina lortuta bueltatu da etxera: eslalomekoa eta erraldoi-proba edo abiadura probakoa. 13 urte izanagatik ere, 18 urtera artekoekin lehiatu zen Loiola, Espainia mailakoetan eta proba orokorretan ez dagoelako infantil mailarik eta jubenilekin aritu behar izaten duelako. Hala ere, bera baino zaharragoak beste badela berretsi zuen elgoibartarrak. Asteartean, baina, Espainiako Txapelketan, ezin izan zuen asteburuko emaitza biribildu, bigarren jaitsieran erori egin zelako. Bera izan zen azkarrena lehenengo proban, eta bigarrenean jausi arren, berehala jaiki eta denbora onean bukatu zuen, baina deskalifikatu egin zuten. Denboraldiko



azken proba izanda, arantza hori hor gelditu zaiela aitortu du Isaak Loiola aitak, baina denboraldiaz oso balorazio positiboa egin du: “Oso gustura ari da Gaizka, oso pozik ikusten dugu, eta horrek izugarri pozten gaitu. Gainera, disziplina handia duela erakutsi du, asko hobetu du eta hobetzeko prest dago eta konpromiso handia erakutsi du bai kirolerako eta baita bere laguntzailearekiko ere”.

Sanloko Tecnifuelle eskubaloi taldea Euskadiko txapelkunorde izendatu da asteburuan



Euskadiko kadeteen eskubaloi txapelketan bigarren egin dute Tecnifuelleko neskek asteburuan. Hiru partidatara jokatu zuten finala. Ostiralean, Zarautzen kontra jokatu zuten Aritzatalde kiroldegian, eta 29-21 galdu zuten elgoibartarrek. Larunbatean, Bera-Beraren kontra lehiatu ziren, eta orduan ere galdu egin zuten, justuan bada ere (22.23). Igandean, baina, bederatzi goleko aldearekin irabazi zioten Kukullagari (17-26), eta sailkapen nagusian bigarren egin zuten. Euskadiko txapelketako lau talde finalistak Espainiako hurrengo faserako sailkatu dira.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 0 – Beti Gazte 0 (Haundi)
Urkomendi 2 – Elgoibar 0 (Erregionala)
Elgoibar 1 – Urola 0 (Jubenila)
Arrasate 1 – Elgoibar 2 (Kadete A)
Urki 0 – Elgoibar 5 (Kadete B)
Hondarribia 2 – Elgoibar 3 (Lehenengo infantila)
Elgoibar 1 – Lazkao 0 (Infantil txiki)
Elgoibar 1 – Amaiak Bat 3 (Alebin errendimendua)
Zumaia 1 – Elgoibar 7 (Alebin partehartzailea)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa
Eibar 22 – Lagunak 21 (2.mailako jub.)
Deba Arroko Txapelketa
Lagunak 22 – Euskal Jolas 19 (Jubenilak)

ARETO FUTBOLA

Ebrosala 1 – Concepto Egile 2 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Santoña 25 – Alcorta Forging Group 25 (Sen. mut.)
Zarautz 22 – Gabaz Elg. 23 (Sen.mut.)
Casa Astigarraga 39 –Egibide Gasteiz 12 (Jub. nes.)
Pneumax Elgoibar 30 – Zarautz 19 (Kad.nesk.)
San Roke Egoibar 33 – Zarautz E 16 (Infantil nesk.)
Federopticos Ikus Elg. 28 – Egia 13 (Infantil nes.)
Tolosa A 24 – Hotel Txarriduna 32 (Infantil mut.)
Hotel Txarriduna Elg. 29 – Ordizia 18 (Infantil mut.)
Sukia Elgoibar 22 – Urola 15 (Alebin mutilak)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28
11:45 Elgoibar – Urnieta (Infantilak)
13:15 Elgoibar – Soraluze (Kadete A)
16:30 Haundi – Aurrera
18:30 Elgoibar – Oiartzun (Erregionala)
Domekia, 29
10:00 Parte-hartze alebina – Urki (Alebinak)
16:30 Elgoibar – Ilintxa (Ohorezko kadeteak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 28
10:00 Cometel – San Roke (Infantil neskak)
11:15 Deca – Aloña (Kadete mutilak)
17:15 Beristain – Aloña (Jub. mutilak)
19:00 Lauko – Camargo (Senior neskak)
Domekia, 29
10:30 Sukia B – Zarautz B (Alebin neskak)
11:30 Gabaz – Urola (Senior mutilak)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **631 738 048**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka zein interna. ☎ **635 189 294**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. ☎ **636 976 515**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka nahiz interna. Premia handia. ☎ **631 790 555**
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **654 304 337**
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako, eta umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ **695 708 379**
- Gizona eskaintzen da zerbitzari lanetarako edo adinekoak zaintzeko. Mekanika eta mantenu alorrean ere esperientziaduna. ☎ **661 064 027**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, zein sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **677 259 560**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **626 580 592**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **631 651 098**
- 30 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako, garbiketarako... prest. ☎ **651 544 858 (Eli)**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna. ☎ **631 697 238**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Orduka edo gauzez. Erreferentzia onak. ☎ **631 343 232**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, interna edo orduka. ☎ **631 124 942**
- Emakumea garbiketarako egin edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna. ☎ **639 523 390**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, interna edo orduka. Erreferentzia onak. Paperak legez. ☎ **631 681 516**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka, asteburuetan ere. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **680 808 125**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Ordu-tegi malgua. ☎ **675 392 772**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ **634 278 902**

- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **688 825 514**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **606 354 982**
- Gizonezkoa lan bila. Urmeen logelak apaintzeko era guztietako marrazkiak egiten ditut. ☎ **632 970 524**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ **639 423 493**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Interna ere bai. ☎ **622 131 664**
- Emakumea umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **631 834 241**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **631 448 980**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **602 846 244**
- Gizonezkoa eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. ☎ **631 974 442**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Adinekoak zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. Interna ere bai. ☎ **631 705 406**
- Emakume arduratsua adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Egunez zein gauzez. ☎ **682 255 834**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Interna ere bai. ☎ **632 454 417**

- Emakumea eskaintzen da, nagusiak zaintzeko. ☎ **632 955 016**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile aritzeko, adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ **632 423 984**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- 43 urteko gizonezkoa lan bila. Euskal Herrikoa. Banatzaile, fabrika garbitzaile, igeltsero laguntzaile, lorezain... Fenwich erabiltzen esperientzia. ☎ **603 644 117 (Felipe)**
- Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **660 511 781**

ESKAITZA

- Klase partikularrak jasoko nituzke: Gaztelania eta Matematika, goi mailako modulorako. ☎ **943 741 042**

ETXEBIZITZAK

- Bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. 500 euro ordainduko nituzke gehiezin. ☎ **661 064 027**
- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **606 354 982**
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **661 064 027**
- Pisia hartuko nuke alokairuan. Logela bat edo bi. ☎ **677 259 560**
- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Negoziagarria. ☎ **660 055 692**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Etxe azpiko merkataritza lokaletakoak etorri ez ziren ezohiko bilera batean, ehun euro gehiagoko ekarpena egitea adostu genuen, eraikinaren aseguruaren polizia ordaindu ahal izateko. Izan ere, aurrezki-libretan ez genuen diru askorik eta komeni zitzaigun hor dirutxo bat izatea, ustekaberen bat gertatuko balitz ere. Etxe-jabeok jarri dugun diru kopuru bera eska genieziaieke lokal horien jabeei?

Lokal horietakoek portalerako sarbiderik ez izateak eta ondorioz eraikinaren elementu komunak ez erabiltzeak ez du esan nahi komunitate horretako jabe guztiei dagozkien betebeharrak betetzetik salbu daudenik.

Legeak dio lokal jabe horiek ere behartuta daudela gastu orokorrak ordaintzera eta baita komunitate horretan duten erretserba-funtserako egin behar diren diru-ekarpenak egitera ere. Beraz, etxe-jabeen komunitateko estatuetan kontrakoa jaso ez bada behintzat, lokal jabe horiek behartuta daude gastu horiek ordaintzeko dagozkien diru-kopurua jartzera eta irabazietan ere partea izango dute. Hori bai, gainerakoei bezala, parte-hartze kuotaren arabera zehaztuko zaie beti egin behar duten diru-ekarpena.

AHOLKUA: Komeni da komunitateko aurrezki-libretan behar beste diru izatea, ustekabean sortu daitezkeen kontu premiazkoei erantzuteko.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zorionak, **Elsa**, martxoaren 31n 5 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Joxepa**, martxoaren 29an 87 urte egingo dituzulako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Oier!** Gure granuja txikiak 4 urte beteko ditu martxoaren 31n. Muxu handi bat, denon partez.



• Zorionak, **Danel!** 3 urte, *bandido!* Muxu handi bat familiakoan partez, eta bereziki, Estanisen partez.



• Zorionak, **Jon**, martxoaren 25ean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Isabel**, atzo 76 urte egin zenituelako. Seme-alaben, biloben eta familiako gainerakoan partez.




• Gure udaberriko larrosak dagoeneko 3 urtetxo. Zorionak, **June**, etxekoan partez.



• Irtsi da egun handia. Jarraitu zaren bezalako izaten. Eskerrik asko, zure amaigabeko irribarreagatik. Gurasoen partez.



• Zorionak, gure printzesa **Naroa**, zure seigarren urtebetetzear. Muxu handi bat etxekoan partez.




• Zorionak, **Kepa!** Hilaren 18an 6 urte bete zituen gure etxeko txikiak. Muxu asko, etxekoan partez.



• Zorionak, **Martin**, zure hirugarren urtebetetzear. Muxu bat, zure lehengusina Paularen partez.



• Zorionak, **Harriet**, hilaren 20an 5 urte egin zenituelako. Familiakoan partez, eta bereziki, lehengusu Aritz eta lehengusina Intza eta Malenen partez.



• Urtebete dagoeneko gure etxeko txikiak. Muxu handi bat, **Danel**, familiakoan partez, eta bereziki Markel eta Endikaren partez.



• Familiako guztien, eta bereziki Gorkaren partez, zorionak eta muxu handi bat, **Mala**, zure bederatzigarren urtebetetzear.



• Zorionak, **Julen**, zure hamaikagarren urtebetetzear! Muxu haundi bat familixako guztixon eta batez ere Naia eta Ikerren partez.



• Zorionak, **Koldo**, 2 urtetxo egin dituzulako. Muxu handi bat anaia Julenen eta etxeko gainerakoan partez.



• Zorionak, **Nagore!** Astelehenean 4 urtetxo bete zenituen eta egun zoragarria pasatu genuen. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak gure **etxeko San Jose lorari**. Oso ondo pasatu genuen. Patxo handi bat, etxeko guztien partez.



• **Lur**, luze baina labor, labor baina luze. 6 urte, hankaluze!



• Zorionak **Amaia eta Aneri**, gaur eta datorren astean urteak beteko dituztelako. Muxuak familiako guztien partez



• Zorionak, **Nahia**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez, eta batez ere, ahizpa Malenen partez.

Argazkiak BARRENEKO bulegora ekari behar dira,
edo
barren@elgoibarkoizarra.eus
e-postara bidali.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



70eko kintoei esker onez, martxoaren 14an elkarrekin igaro genuen egun ederragatik. Antolatzaileak.

28 zapatua

Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta

Kalebarren plazan.

11:00 Txosna

Elgoibarko Izarrarekin, Kalebarren plazan.

12:00 Kale Kantariak

Kalebarren plazatik.

12:30 Landaketa tailerra

Atxutxiamaikarekin.

Eguerdian Ganadu erakusketa

Aita Agirre plazan.

Informazio saioa

11:00 Ingeniaritza duala IMHn.

29 domeka

Jaiak

11:30 Udaberri festa

Atxutxiamaikak antolatuta, Maalako parkean.

Musika

12:30 Udal Musika

Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

- *Icod* (J.M. Martin Domingo).

- *Slavonic Rhapsody* (C. Friedemann).

- *The Beatles collection* (J. de Meij).

- *Singin' in the rain* (Brown Freed).

- *El fantasma de la opera* (Lloyd Weber).

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
27 Oruesagasti 28 Barrenetxea 29 Barrenetxea 30 Ibañez 31 Garitaonandia 1 Etxeberria 2 Yudego 3 Yudego 4 Ibañez 5 Ibañez 6 Ibañez 7 Etxeberria 8 Garitaonandia 9 Ibañez 10 Yudego	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Las 50 sombras de Grey»

27, barixakua: 21:30
28, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

29, domeka: 19:00
30, astelehena: 21:30

«Annie»

29, eguena: 16:30

«Bob Esponja»

5, domeka: 16:30

«Alma salvaje»

2, eguena: 21:30
3, barixakua: 21:30

«Cómo acabar sin tu jefe»

4, zapatua: 19:00/22:15 (VOS)
5, domeka: 19:00
6, astelehena: 21:30



Gaur Udaberri Festa

Ludotekan,
17:00etatik aurrera.
Animatu eta parte hartu!"



Igande honetan amaituko da **ekintza berezietan** izena emateko epea. Etorri eta informatu zaitetz!

OHARRA

Aste Santua dela-eta, apirilaren 3an ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo alea apirilaren 10ean jasoko duzue.

ORDU ALDAKETA DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekako 2:00etan, ordubetez aurreratu beharko da ordularia.



Zuri esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, nire arreba Izarok lana du desgaitasuna duten pertsonen alde egiten duen tailer batean.”

Jon, 33 urte

Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

HILEKO AZKEN ZAPATUKO FERIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN MARTXOAREN 28AN

Txorizo egosia



1€

Okela egosia



1€

Salda



0'50€

ZAPATU HONETAN GOIZARI IKUTU BEREZIA
EMAN NAHI BADIOZU
ETORRI KULTUR ETXE PARERA

Pintxoak euro baten truke,
11:00etatik aurrera



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzealen Topagunea